



Esp. kodea: 2026SSEC0011

Gaia: 2026ko Araudi Planaren aldaketa
Hasiera eguna: 2026/04/14

ZIURTAGIRIA

NIK, Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIAK,

ZIURTATZEN DUT:

Udaleko Osoko Bilkurak, 2026ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

“2026KO ARAUDI PLANA ALDATZEKO PROPOSAMENA (2026SSEC0011)

Udalbatzarra osatzen duten legezko 21 zinegotzietatik 19 bilkuran daudela, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, Pertsonen batzordearen diktamen hau onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“2016ko urriaren 2an sartu zen indarrean 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

Horren 132. artikulua honakoa dio:

“132. artikulua. Arau-plangintza.

1. Herri-administrazioek, urtero, araugintza-plan bat argitaratuko dute. Bertan, hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren lege- edo erregelamendu-ekimenak jasoko dira.

2. Urteko Araugintza Plana onartu ondoren, dagokion Administrazio Publikoaren Gardentasunaren Atarian argitaratuko da.”

Hala ere, Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 24ko, 55/2018 Epaiak adierazi zuen artikulua hori eskumenen konstituzio-ordenaren aurkakoa zela, 7 b) eta 7 c) oinarri juridikoen arabera.

Behin 132. artikulua konstituzio-kontraktasuna deklaratu, ezerk ez du eragozten toki-erakundeak, bere erregelamendu-ahala aplikatuz, araudi planean aurreikusi gabeko ordenantzak edo erregelamenduak onartzea.

Araudi planaren izaera tresna programatikoa da, arau-baliorik gabea, eta, beraz, ezin du eraginik izan ordenantzen edo erregelamenduen baliozkotasunean.

Araudi planaren xedea da, urtean onartu nahi diren ordenantzen plangintza egitea, baina horrek ez du eragozten araudi plan horretan sartuta ez dauden ordenantzak onartzea, baldin eta behar bezala justifikatuta badago. Administrazio-espedituan jasoko dira justifikazio txosten horiek.

Udal Plenoak, 2026ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, besteak beste, 2026rako Araudi Plana onartu zuen. Bertan ez zen aipamenik egin **Arrasateko Udaleko hezkuntza kontseiluaren** erregelamendua aldatzearen inguruan.

Kodea	H26/00682	Udala	Arrasate/Mondragón
Data	2026/mai./06	CUDO	000.0055.AAA1FJ2P.6.V9FW
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1FJ2P6.V9FW		
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			





Esp. kodea: 2026SSEC0011

Gaia: 2026ko Araudi Planaren aldaketa
Hasiera eguna: 2026/04/14

Hezkuntza sailaren proposamenean honako hau jasotzen da:

*“2025ean **Arrasateko Hezkuntza Kontseilua** sortu zen, herriko hezkuntzaren etorkizuna irudikatzeko helburuarekin. Aurreko urteetan egindako **diagnostiko zabalak** argi utzi du Arrasatek erronka handiak dituela, eta horiei modu partekatuan erantzutea da aurrerantzean egingo den lanaren ardatza.*

Hainbat eragiletako ordezkariak osatzen dute Arrasateko Hezkuntza Kontseilua: Leintz Eskola Kirola, Txatxilipurdi, Institutuko guraso batzordea, Institutuko zuzendaria, Arizmendi Ikastolako zuzendaria, Arizmendi Ikastolako guraso batzordea, Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarte, Arrasate Herri Eskolako zuzendaria, Haur eta Guraso Asanblada, Arrasate Musikal, Udal Euskaltegia, Udaleko Hezkuntza teknikaria, Elhuyarrek bideratzaileak eta Udaleko Hezkuntza eta Ongizate zinegotzia.

Ikasturte honetan plan estrategikoari heldu dio kontseiluak, "lehentasunezko zat" hartuta herri hezitzaile filosofia.

*Arrasateko Hezkuntza Diagnosian hiru arlo nagusi jarri ziren erdigunean lanketa abiatzeko: **euskara, inklusioa eta bizikidetzeta eta herri kohesioa.***

Prozesu horren hurrengo urratsak erronka bakoitzari erantzuteko ekintza zehatzak irudikatzea izango dira. Arrasateko Udalaren eta Arrasateko Hezkuntza Kontseiluaren helburua argia da: "Etorkizuneko hezkuntza komunitario, inklusibo eta berritzailea eraikitzea, herritar guztien parte-hartzearekin".

*Plan estrategikoaren barruan helburu garrantzitsu bat egun indarrean dagoen **Arrasateko Udaleko hezkuntza kontseiluaren** arautegia aztertu eta aldaketa proposatzea da. Arautegian aldaketa proposamenak egin dira, eta ekarpenak jasotzea da asmoa 2026ko Araudi planean aldaketak egiteko."*

Horiek horrela, Pertsonen Batzordeak honako hau proposatzen du:

Lehenengoa: 2026rako Araudi Plana aldatzea aurrez aipatutako testuarekin.

Bigarrena: Aipatutako plana udal web orrian erakusgai jartzea."

Eta hala jasota geratzeko eta ondorio egokiak sortzeko, ziurtagiri hau egin eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2026ko maiatzaren 6an.

OE

Alkatea

Kodea	H26/00682	Udala	Arrasate/Mondragón
Data	2026/mai./06	CUDO	000.0055.AAA1FJ2P.6.V9FW
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1FJ2P6.V9FW		

Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia

